


ANTXIÑAKO MARRAZKIXA



Izurrite modernua

Nork esan hau be aillegau bihar xakunik. Izurrite, epidemia eta antzerakuak aspaldiko kontuak zirala pentsaiten zan. Gaur negungo aurrerapenekin halako gaitzendako erremedixua goizetik gabera asmau eta eskuratuko zala uste geben gehixenok. Ez ba, **kantzontzillotan harrapo gau** Txinan sortutako **koronabirusak**, eta abixada ikaragarrixan zabalketan hasi da mundu guztian. Gure artian be bai, zela gaiñera!

Baiña sasue bateko izurritiak be etziran makalak izaten. Egin daigun Oñatin izandakuen errepatotxo labur bat: eztogu **1347-1353 arteko peste baltz** bildurgarrixak hemen eraginddako heriotzen barri, baiña ixa Europa osua bereganatu eben hondamendi ha gure inguruetara be heldu zanez, ondorixo larrixak itziko zittuan, seguru asko.

Datu ugari dittugu, barriz, **1597-1600 urtietan** Euskal Herriko leku askotan nagusitu zan izurrite gogorraren gaiñian. Horretarako oso egogixa da Jose Antonio Azpiazuk 2011n kaleratu eben **Esa enfermedad negra** izeneko liburua irakurtia. Oñatiri buruzko erreferentzia pillia dakar: nabarmenketakuak dira batetik, **Berganzo** medikuaren eta **Orueta** abadiaren **jokabide zintzuak**; eta bestetik, kutsatutakuen isolamendua ziurtaitteko hartu zan **erabagi latza**: orduko **Mendiko kalia alde bixetatik itxi** eta gaixuak derrigorrian bertan sartu, handik alde egitteko iñolako aukera barik.

Azpiazuk dioskunez, izurrite horretan **Oñati** izan zan Euskal Herri osoko **tokirik zigortuena**: biztanlien hirutik bat, **1.200 pertsonatik gora, galdu eben gure herrixak** bi urtian (1597 eta 1598xan); aberatsa zan baillariak krisialdi gogorra ezagutu eben; gaiñera, **herriko jauntxua, kondia, sutan eguen** urte horreittako hamarrenak (“diezmuak”), San Migel parroixako patroiz tokaitten xakonak, bere ustez etziralako bihar beste batu. A zelakotxe lotsa bariko ipixtixa!

Gerora be etorri ziran Oñatira beste hondamendi batzuk, baiña ez XVI. gizaldixaren akabera haretako tamaiñakorik. Dana dala, aittatu biharrekuak dira, bestiak beste, **1855eko kolera morbu**a, bi gerra karlisten tartian gertatua, eta **1918ko udazkeneko gripia**, Oñatin eta Arantzazun agorraren hasieran izan ziran jai eta ospakizun jendetsuen ondoren: **162 hilddako** ekarri oskun **lehenenguak** eta **30en bat bigarrenak**. Guri orain, neurri apalaguan bada be, koronabirusa aguantattia dagokigu. Antxiñako aittajaun-amandriak zera esango leukiei: **Hau dok/don izurramena!**

Marrazkixa, egixa esan, ezta hain zaharra be. Julen Zabaletak moldau eben beste batzuekin batera J. A. Azpiazuren libururako. Mendiko kaleko konfinamendu terriblia agertu gura dau. Eskerrak Joxeantoniori eta Tomas Igartuari argibidiengatik.